



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

I. KAPITULUA

XEDEA, EREMUA ETA MUGA OROKORRAK

1. artikulua- Xedea

1.- Ordenantza honen xedea herri erabilerako lekuetan ostalaritzako establezimendu legeztatu baten osagarri gisa erabiliko diren terrazak jartzeko araubide tekniko eta juridikoa ezartzea da.

2.- Aurreko atalaren ondorioetarako, terrazatzat jotzen da mahai, aulki eta horien elementu osagarrien, finkoen zein mugigarrien, multzo osoa, hala nola, itzalkinak, euskarriak, olanak, alboetako babesak (argiak, berogailuak), etab.

3.- Debekatuta dago 2. puntuan zehaztu ez diren elementuak jartzea, hala nola, hozkailuak, mahaiak, armairuak, lore-askak, etab.

2. artikulua- Eremua

1.- Ordenantza hau herri erabilerako leku guztietara aplikatu daiteke (kaleak, plazak, barneko patioak, espazio libreak, etab.), titulartasun publikokoak edo pribatukoak diren kontuan hartu gabe. Herri erabilerako izatearen baldintza egitatezko egoerak eta indarrean dagoen planeamenduak zehaztuko dute.

2.- Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, araudi hau ez da aplikatuko udalaren administrazio-emakida baten babesean garatutako jarduera nagusien instalazio osagarrietara edo aldizkako ospakizunak eta herriko jai-ekitaldiak direla-eta gauzatutako jardueretara, beti ere Udala Agintaritza eskudunak ezarritako egutegiari eta betekizunei lotzen bazaizkie.

3. artikulua- Betekizunak

Ostalaritzako jarduera bat (hala nola, tabernak, kafetegiak, jatetxeak, txokolategiak, dastalekuak, izozkitegiak, etab.) Ireki eta Jarduteko lizentziaren titularrek baino ezin izango dituzte ostalaritzako terrazak jarri

4. artikulua- Muga orokorrak

1.- Ezin izango da terrazarik jarri bi metro eta laurogeita hamar zentimetroko (2,90 m) zabalera baino txikiagoa duten espaloi edo oinezkoentzako lekuetan, ezta oinezkoen pasabideen, elbarrientzako aparkalekuen, etxebizitzetako atarien, larrialdietarako irteeren, bus eta taxi geltokien, eta beira, kartoi, zarama eta abarren kontainerren ondoan edota galtzadaren babesik gabeko bide lasterren ondoan ere.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

2.- Halaber, terrazak jartzea debekatu ahal izango da, bide-segurtasuna, herri lanak edo interes publikoko antzeko beste zirkunstantzia batzuk direla eta.

3.- Terrazetan ez da inolako musika-aparaturik jarriko, ezta bozgorailurik, etab. ere.

4.- Elementu mugigarriek (mahaiak, aulkiak, etab.) horiek erabiltzean zarata egitea galarazten duen babesa izango dute.

II. KAPITULUA

IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA DUTEN KALEETAKO ESPALOIETAN JARTZEKO BALDINTZAK

5. artikulua- *Luzetarako garapena*

Instalazioak, alboetako babesak barne (edozein direla ere), luzetara gehienez hartuko duen lekua ez da jarduera nagusia egiten den lokalaren fatxadaren luzera baino handiagoa izango, ondoko eraikinen titularrak berariazko baimena eman ezean. Hala ere, ez da inoiz izango ondoz ondoko hamar (10) metrokoa baino luzeagoa.

6. artikulua- *Okupazioa*

1.- 3. eta 4. artikuluetan bildutako mugen kalterik gabe, terrazak eta mahaitxoak hurrengo okupazio-baldintzei lotuko zaizkie:

a) Nolanahi ere, instalazioak bermatu behar du Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta horren garapen-arau teknikoak betetzen dituela.

b) Luzetara jarriko dira, espaloi-ertzaren ondoan, eta espaloitik gutxienez hogeita hamar (30) cm-ra, aparkatutako ibilgailuen bidaiarien sarrera eta irteera ez oztopatzeko, babes-hesia egon ezean. Izan ere, babes-hesia egotekotan, bere barneko proiektzio bertikaletik gutxienez hamar (10) cm-ra jarriko dira. Horrez gain, oinezkoentzako etengabeko bidea, oztoporik gabekoa, bermatu beharko da, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta horren garapen-arau teknikoetan xedatutakoaren arabera.

2.- Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, oinezkoen trafiko biziak hala eskatzen duenean oinezkoentzako bide librea zabal daiteke, arlo eskudunak horretarako arrazoiak ematen baditu.

3.- Mugatutako lekua ezin izango da espaloiaren gainean ainguratu behar diren aldi baterako elementuen bidez bete, nahiz eta desmuntagarriak izan.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

7. artikulua- Alboetako babesak

1.- Esparrua inguratzen duten alboetako babesek instalazioak hartzen duen azalera mugatu ahal izango dute. Babes horien bidez, itsuek oztopoa antzeman ahal izango dute.

2.- Alboetako babes horiek opakoak edo gardenak izan ahal izango dira, baina beti ere inguruaren baldintzetarako egokiak.

3.- Babesak ezin izango dira dagokien instalaziorako baimendutakoa baino zabalagoak izan, eta horien altuera metro bat (1) eta metro bat eta berrogeita hamar zentimetroren (1,50) artekoa izango da.

4.- Ezin izango dute publizitate-mezurik izan.

III. KAPITULUA

OINEZKOEN ESPARRUETAN, PLAZETAN ETA ESPAZIO LIBREETAN JARTZEKO BALDINTZAK

8. artikulua- Oinezkoentzako kaleak

1.- Ordenantza aplikatzeko ondorioetarako, oinezkoentzako kaletzat joko dira izaera ofiziala izateaz gain, fisikoki horrela (hau da, espaloi eta galtzadarik gabe) antolatuta daudenak.

2.- Gutxienez, bost (5) metroko zabalera duten oinezkoentzako kaleetan baino ez da terrazarik onartuko, eta oztoporik gabeko oinezkoentzako bidea uzteko moduan jarriko dira, Irigarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta horren garapen-arau teknikoak betetzea ziurtatzen duen zabalera utzita. Gutxieneko altuera lurretik berrehun eta hogeita (220) zentimetrokoa izango da, edozein elementu irtenen beheko ertzean.

3.- Instalazioak alboetatik mugatu eta babestuko dira, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua- Plazak eta espazio libreak

1.- Espazio ireki horietan terrazak jartzeko lizentziaren eskabideak Udala Administrazioak ebatziko ditu, kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera, eta muga orokor hauei jarraiki:

a) Instalazioak, alboetako babesak barne (edozein direla ere), luzetara gehienez hartuko duen lekua ez da jarduera nagusia egiten den lokalaren fatxadaren luzera baino handiagoa izango, ondoko eraikinen titularrak berariazko baimena eman ezean. Hala ere, ez da inoiz izango ondoko hamar (10) metrokoa baino luzeagoa.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

b) Oinezkoentzako etengabeko bidea, oztoporik gabekoa, bermatuko da, fatxadalerrokadura bakoitzean bi (2) metroko gutxieneko zabalera daukana, edo erdiko bide bat, dauden hiri-altzarien baldintzen arabera.

c) Lokal, atari eta abarretarako etengabeko irisgarritasuna bermatuko da.

10. artikulua- *Plazak eta espazio libre bereziak*

Espazio horietan terrazak jartzeko eskabideak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera ebatziko dira, muga orokor hauei jarraiki:

Espazio horietan herri bidea okupatzeko lizentzia 1. artikuluan zehaztutako lokalen titularrek baino ezin izango dute eskatu, baldin eta beren lokalen fatxadaren aurrealdeek horietara ematen badute.

Debekatuta dago pasabidetzat adierazitako gunetan terrazak jartzea.

IV. KAPITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

11. artikulua- *Udal lizentzia*

Terrazak eta horien elementu osagarriak jartzea aurreko udal baimenari lotuko zaio.

12. artikulua- *Eskabidea eta erantsitako dokumentuak*

1.- Interesdunak bidezko lizentzia-eskabidea aurkeztu beharko du Udalaren aurrean, hurrengoak adierazita:

- Izen-abizenak;
- Helbide, telefono-zenbaki eta NAN edo IFKari buruzko datuak;
- Jarduera nagusiaren merkataritza-izena eta kokalekua;
- Jarri nahi diren mahai eta aulkien kopurua, eta aipatutako altzarien irudia eta materialak deskribatzen dituzten dokumentuak (argazkiak, liburuxkak, etab...);

2.- Eskabidearekin batera, mota honetako dokumentu-egiaztagiriak aurkeztu beharko dira:

- Aurretiko bistako plano akotatua, gutxienez 1:100 eskalan egindakoa, edo terraza edo mahaitxoak jarri nahi diren gunearen krokis akotatua. Horren gainean, egin nahi den instalazioa zuzen marraztuko da. Dokumentu horrek ondoko lokalak ere barne hartu beharko ditu.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- Ondoko eraikinaren titularren berariazko baimena, terraza jarduera nagusia egiten den lokalaren fatxadaren luzera baino handiagoa izatea nahi bada.

13. artikulua- *Txostenak eta ebazpena*

1.- Aurreko artikuluetan eskatu den bezala eskabidea aurkeztu ondoren, eta bidezko txosten teknikoa eta juridikoa egin ondoren, Udal Agintaritza eskudunak ebazpena emango du arauzko epean (3 hilabete).

2.- Hala denean, txosten teknikoak dokumentu edo fitxa bat barne hartuko du, baimentzen den instalazioaren baldintza zehatzak (kokalekua, okupa daitekeen azalera, mahai eta aulkien kopurua, etab.) grafikoki biltzen dituena.

3.- Hiru hilabeteko epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea atzera botako da, okupatzeko eskabideak titulartasun pribatuko lurzoruari bakarrik eragin eta hirigintza antolamendua errespetatu ezean.

14. artikulua— *Lizentziaren baldintzak*

1.- Lizentzia beti jabetza-eskubidearen kalterik gabe eta hirugarrenei eragozpenik eragin gabe emandakotzat joko da. Hori ezin izango da erabili onuradunak bere jarduerak betetzerakoan eragin lezakeen erantzukizun zibil edo zigor-erantzukizuna kentzeko edo murrizteko, eta, halaber, ez du titularra salbuetsiko beste baimen batzuk eskuratu behar izatetik.

2.- Lizentziaren dokumentuan instalazio eta elementu osagarriei buruzko baldintzak ezarriko dira: kokaleku zehatza, okupatu beharreko azalera, mahai eta aulkien kopurua, emakidaren indarraldia, eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako berezitasunak.

3.- Lizentziaren titularrak terrazari dagokion lizentziaren dokumentua edo horren kopia begien bistan eta eskura izan beharko du, lizentzia horren arabera eman baitzaio. Udal arduradunak leku hori zehaztuko du, terrazak hartzen duen lekua egiaztatzen duen unean.

4.- Lizentziak prekario izaera izango du beti, eta trafiko, urbanizazio eta obra gorabeherek edo interes orokorreko beste edozein inguruabarrek hala eskatzen dutenean, Udal Agintaritzak baimendutako instalazioak herri bidetik kentzeko agindu ahal izango du, modu arrazoituan, interesdunei jakinarazi ondoren –ezinbesteko kasuak izan ezean-. Titularrak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

5.- Lizentziaren titularra behartuta dago instalazioaren ondorioz herri bidean gertatzen diren kalte guztiak konpontzera.

15. artikulua— *Eskabideak egiteko epea eta indarraldia*



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

1.- Lizentzia urtebetekoa izango da, eskabidea egiten den egutegiko urtearekin bat etorrita, hila kontuan hartu gabe.

2.- Baimena ezer adierazi gabe luzatuko da eta baliozkotasuna izango du bajarik aurkezten ez bada edo Udalak etetea eskatzen ez badu; eskaera hori, erabilera baimentzen den urteko epealdia hasi baino hilabete lehenago egin beharko du Udalak.

3.- Indarraldia amaitutakoan, lizentziaren titularrak instalazio guztiak kendu eta herri bidea lehen zuen egoerara itzuli beharko du.

16. artikulua—*Funtzionamendu ordutegia*

1.- Ordutegi orokorra (azarotik apirilera):

- Goizeko **09:00**etatik gaueko 22:00ak arte, ostiral, larunbat eta jai bezperetan izan ezik. Egun hauetan **09:00**etatik 23:00etara baimenduko da.

2.- Ordutegi orokorra (maiatzetik urrira):

- Goizeko **09:00**etatik gaueko 23:00ak arte, ostiral, larunbat eta jai bezperetan izan ezik. Egun hauetan **09:00**etatik 24:00etara baimenduko da.

3.- Udako ordutegia (ekainetik irailera, biak barne):

- Goizeko **09:00**etatik gaueko 24:00ak arte, ostiral, larunbat eta jai bezperetan izan ezik. Egun hauetan **09:00**etatik 01:00etara baimenduko da.

4.- Herriko jaietan, Aste Santuko ostegunetik astelehenera bitartean eta Inauterietako ostegunetik asteartera bitartean, Alkatetzak aurretiaz ezarritako ordutegia luzatu ahal izango du. Horrelakorik ezean, ordu biko (2) luzapena aplikatuko zaio aurretiaz ezarritako ordutegiari.

5.- Terrazaren funtzionamendu ordutegia amaitutakoan, elementu guztiak kendu beharko dira herri bidetik eta, horretarako, hogeita hamar (30) minutuko epea emango da. Salbuespenetan eta behar bezala arrazoitutako kasuetan, establezimendua itxi arte elementuak herri bidean uztea baimenduko da; horrelakoetan, establezimendua ixtean elementu guztiak sartu beharko dira barrura.

17. artikulua—*Okupa daitekeen azalera mugatzea*

1.- Lizentzia eskuratutakoan, titularrak, lekuan bertan, argi eta zehatz adierazi beharko du baimendutako okupazioaren gehieneko azalera; ondoren, udal arduradunek azalera hori egiaztatu beharko dute.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

2.- Lurzoruan eranskailu, pintura edo antzekoak erabiliz egingo da mugaketa hori. Lizentziaren titularrak mugaketa horrek lizentzia indarraldian egon bitartean iraungo duela bermatu beharko du.

3.- Mugaketa sistema beharrezkoa izango da eta inoiz ere ezin izango du oinezkoentzako arriskurik ekarri, ez eta herri bidea kaltetu edo aldatzea ere; betekizun hori betetzen ez bada, hutsegite larria dela aintzatetsiko da.

4.- Herri bidean inola ere ezin izango da aulki, mahai, eguzkitako edo antzekoen metaketarik egin, ez eta terrazaren bestelako elementu osagarriak utzi ere, ezarritako ordutegitik kanpo.

18. artikulua—*Lizentziaren titularraren betebeharrak*

1.- Izaera orokorreko betebeharez eta ordenantza honetatik eratorritakoez gain, lizentziaren titularra behartuta dago baimentzen den okupazioko lurra, instalazioa bera eta elementu osagarriak garbitasun, segurtasun eta apaintasun egoera ezin hobean edukitzera, eta horretarako beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarriko ditu, hala nola, paperontziak, ur-hautsontziak, etab.

2.- Pertsona hori izango da terrazaren funtzionamendu eta erabileratik eratorritako Ingurumena Babesteko Ordenantzaren urratzeen arduraduna.

3.- Bestalde, titularra izango da instalazioen ohiko edo ohiz kanpoko erabileratik eratorritako kalte-galera, istripu, ezbehar eta antzeko guztien erantzulea, dagokion erantzukizuna bere gain hartu beharko duela.

4.- Era berean, dagozkion tasa eta gainerako zerga guztiak ordainduko dizkio Udalari, zerga ordenantzek ezarritako zenbatekoan eta moduan.

V. KAPITULUA

DIZIPLINA ARAUBIDEA

19. artikulua—*Lizentziarik gabeko instalazioak*

1.- Lizentziarik gabe herri bidean jarritako terraza eta gainerako elementu osagarri guztiak kendu ahal izango ditu udal agintariak, berehala eta kautelaz, eta dagokien tokian utzi. Hori ez da eragozpen izango, hala ere, dagozkion zigorrak ezartzeko, erantzulearen pentzura.

2.- Lizentziak emandako epealdia amaitutakoan terrazak mantentzea, diziplina ondoretarako, udal baimenik gabeko egoerarekin parekatuko da.

20. artikulua—*Lizentzia-baldintzak ez betetzea*



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Ordenantza honetan bildutako lizentzia-baldintzak edo manuak betetzen ez badira, zehapen ekonomikoa ezarriko da, indarrean dagoen legeriaren terminoetan; hala ere, horrek ez dio inolako kalterik egingo lizentzia baliogabetzeari eta instalazioa berehala kentzeari, udalaren agindua betetzen ez den kasuetan.

Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzearen arduraduna lizentziaren titularra dela aintzatetsiko da edo, hala dagokionean, establezimenduaren titularra.

Udal Agintariak bezeroek bete beharko dituzten arauen publizitatea egingo du, besteak beste, terrazan altzariak jartzeko kokapena mantentzeari buruzko beharra.

21. artikulua- Arau-hausteak.

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak arin eta larrietan eta oso larrietan sailkatzen dira.

1.- Arau-hauste arintzat joko dira honakoak:

- a) Terrazak ezarritako ordutegiaz kanpo jartzea.
- b) Baimendutako elementu-kopurua baino elementu gehiago jartzea (mahaiak, aulkiak edo bestelako elementu osagarriak)
- c) Mahaiak, aulkiak edo elementu osagarriak baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.
- d) Okupazio-eremua apaintasun, segurtasun eta garbitasun egoera egokian ez edukitzea.

e) Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea.

2.- Arau-hauste larritzat joko dira:

- a) Terrazak eta bestelako elementu osagarriak lizentziarik gabe jartzea.
- b) Ordenantza honi loturik dauden elementuak bertan ezarritako baldintza teknikoak bete gabe jartzea.
- c) Zigor espedienteari hasiera eman aurreko urtean arau-hauste arin bi egin izana eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea

3.- Arau-hauste oso larritzat joko dira:

- a) Zigor espedienteari hasiera eman aurreko urtean arau-hauste larri bi egin izana eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

b) Terrazak instalatzearen ondorioz, erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuek herri eremua erabiltzea eragozte.

c) Terrazak instalatzearen ondorioz herri eremuetan eragindako narriadura larri eta garrantzitsuak eragitea.

22. artikulua- *Zigorrak.*

1.- Ordenantza honetako arau-hausteak direla-eta, eskala honen arabera ezarriko dira isunak:

a) Arau-hauste arinak: 750 eurora arteko isuna.

b) Arau-hauste larriak: 751 eta 1.500 eurora arteko isunak edota lizentzia baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, udalaren agindua betetzen ez den kasuetan..

c) Arau-hauste oso larriak: 1.501 eta 3.000 eurora arteko isunak edota establezimenduak, etorkizunean eta epe leko epean, ordenantza honetan araututako baimenak eskuratzeko gaitasun gabe uztea, egindakoaren larritasunaren arabera.

2.- Gerora instalazioa legeztatzen bada, eta arau-haustea berriz gertatu ez bada edo udal aginduak betetzeari uko egin ez bazaio, zehapena zigor ekonomiko soil a izatera murriz daiteke

23. artikulua- *Zigor espedientea*

Dagozkion zigorrak ezartzeko, beharrezkoa izango da aurretiaz dagozkion espedientea bideratzea, eta espediente hori Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

24. artikulua—*Ordezko betearazpena*

Udalak herri bidean jarritako elementuak kentzeko agintzen badu, eta instalazioaren arduradunak agindu hori betetzen ez badu, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan, Administrazioak elementuak kentzeari ekin ahal izango dio eta horretarako izendatutako tokian utzi. Jabetzak eskuratu ahal izango ditu, aurrez dagozkion tasa eta gastuak ordainduta.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehenengoa.—*Arau estetikoak*



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

1.- Kultur intereseko guneetan, bai eta era horretako babesak eskatzen dituen gune eta inguruetan ere, terrazak Udalak ezarritako arau estetikoak jarraitu behar dira; udalak, era berean, gune bakoitzean dauden elkarrekin edo kudeaketako erakunde publikoek egindako proposamenak hartuko ditu kontuan, horrelakorik egotekotan.

2.- Oro har eta udalerrira guztirako, debekatuta dago terraza eratzeko duten elementuetan publizitatea jartzea, bai eta gainerako elementu osagarrietan jartzea ere.

3.- Bai eskabide berrietan bai eta lizentzia berritzeko eskabideetan ere, instalatu nahi diren altzarrien ezaugarriak adierazi behar dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.—Ordenantza honen testu osoa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunetik aurrera hamabost egun baliodun igarotzean hasiko da ondorioak sortzen ordenantza hau.

Bigarrena.—Berariaz udal agintaria ahalmentzen da lizentziak emateko eta ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, betiere administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen araudian jasotako arauen arabera.

ERANSKINA

Terrazak instalatzeko irizpide estetikoak.

1.- Lizentziaren titularra den pertsona batek ere ezin izango du plastikozko altzaririk erabili, ez eta merkataritza-publizitatea edo babeste-publizitatea duen inolako altzaririk ere.

2.- Olanak eta eguzkitakoak izango dira elementu nagusiak eta terrazetan ikustera eragin handiena izango dutenak eta, horrenbestez, aurreko puntuan adierazitakoa betetzeaz gain, diseinu eta tratamendu kromatiko baterakoa eduki behar dute eta, gainera, inola ere ez dira deigarri edo kirrinkariak izango. Era berean, diseinatutako oina izango dute eta debekatuta egongo da hormigoizko oinarriak erabiltzea.

Horretarako eta interesdunak zalantzaren bat baldin badu material edo kolore zehatzen bat arau honetan ezarritakoari egokitzen zaion jakiteko, Udaleko Zerbitzu Teknikoengana jo ahal izango du, alderdi horiek baimen-eskabidea egin aurretik argitu ahal izan ditzan.

3.- Udalak olan, eguzkitako eta antzerakoak diseinu eta kolorea zehazteko proposamen orokorra egitea eska dezake oinezkoen kaleetan, plazetan eta 10. artikuluan definitutako espazio libre berezietan dauden establezimendu guztien diseinu eta koloreari dagokionez; udal administrazioak hori onetsitakoan, aplikazio oinarri gisa erabiliko da aurrerantzean.



Amorebieta-Etxano Udalak
Bizkaia

Xedapen iragankorra.-

Terrazak jartzeko emandako baimenak pixkanaka ordenantza honetan ezarritako baldintza tekniko eta publizitate-baldintzetara egokitzeko, 2004ko abenduaren 31ra arteko egokitze-aldia ezarriko da. Egun horretatik aurrera, terrazetako osagai guztiek ordenantza honetan ezarritako baldintza teknikoak eta publizitate-baldintzak bete beharko dituzte.

Jada eman diren lizentzia guztiak ere aipatutako eguna baino lehen berritu behar izango dira, bai eta ordenantza honetan eskatutako agiri guztiak eduki ere.